# Bidelagun 2023 Programaren aurkezpena

Lekukoa pasatzen: emakume batí lagun iezaiozu bere udaleko kargu berria hartzen

Elkarrenganako prozesu aberasgarria, konfiantzan,  hurbiltasunean eta ahalduntzean oinarritua



Maru Sarasola Anzola

VIRGINIA WOOLF BASQUESKOLA

EMAKUNDE

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

# Zer da Basqueskola Bidelagun programa?

- Hautetsi **berri bati laguntzeko prozesu bat da,** Udaleko kargu berrian emango dituen lehen urratsetan laguntzeko. Ezagutza eta esperientzia berarekin partekatzea da helburua, bere ibilbidearen hasieran orientatzeko eta kargu berrian sartzea errazteko.

- Mentoria emakumeentzako ahalduntze-tresna da tokiko politikan.

# Zer egiten du VWB Mentore / Bidelagun batek?

Hitz gakoak

**Bidelagun Mentore** izatea begiratzeko ispilua da.

- Orientatzailea
- Aliatua
- Ikasketaren bideratzailea
- Konektorea
- Aholkularia

# Basqueskola Bidelagun mentore programa

**Oinarrizko egitura malgua proposatzen dizuegu, mentoreen behar eta iradokizunetara irekia**

**Iraupena:**

- Urte bat: 2023ko irailetik – 2024 irailera
- Akonpainamendu etapa: 2023ko azarotik 2024ko irailera

**Modalitatea:**

- Akonpainamendua mentore eta mentoredunen arteko bileren bitartez gauzatuko da.

- Bilerak errazteko hobe online, hala ere, mentore/mentoredun bikote bakoitzak aurrez-aurre egin dezakete hala nahi izanez gero

**Mentore / mentoredunen esleipena:**

- Lantalde teknikoak egingo du, adostutako irizpideei jarraituz, eta mentore/mentoredunei proposatuko zaie, onar dezaten

# Basqueskola Bidelagun mentoria prozesua

2023ko azaroa – 2024ko iraila

## Gomendatzen da (gutxieneko konpromisoa, malgutasunarekin):

- **Gutxienez 5 online bilera egin** mentore eta mentoredunaren artean. *(Bikote bakoitzak autonomia du bere beharren arabera bilera kopurua aldatzeko edo aurrez aurreko bilerak egiteko)*
- **Maizago** biltzea prozesuaren lehen hilabeteetan
- **Bileren artean** harremanetan egotea telefono, posta elektroniko edo whatsapp bidez
- Mentoreentzako **online bi topaketetara** joatea, laguntza-ekintza gisa proposatzen ditugunak (hasierakoa eta amaierakoa)

# Bidelagun mentoreentzat babes ekintzak

## Formakuntza – jarraipen – itxiera online saioak: 3 edo 4 sesio

**Ongi etorria eta oinarrizko *traininga***

- *2023ko iraileko 3.astea*
- *3 ordu*

**I. Elkargunea**

- *2024ko 4. astea*
- *2 ordu gehienez*

**II. Elkargunea**

- *2024ko apirila-maiatza*
- ***(hautazkoa eskariaren arabera)***
- *2 ordu gehienez*

**Itxiera eta esperientziaren balorazioa**

- *2024ko iraileko 3-4.astea*
- *2 ordu gehienez*

**Erremintak:**

Harremana errazago kokatzeko laguntza akordioa
Aholkularitzarako oinarrizko gida, gomendioekin
Mentoredunarekin saioen jarraipena egiteko txantiloia
Prozesuan zehar laguntza teknikoa

# ¿Nor izan daiteke VWB Mentore/Bidelagun?

- Tokiko hautetsia den emakume bat, edo izan dena
- Tokiko politikaren maitalea
- Eguneroko jardunean esperientzia eta ezagutza duena
- Komunikaziorako eta entzute enpatikorako gaitasuna duena
- Emakumeen parte-hartze politikoarekin eta berdintasun politikekin konprometituta dagoena
- Udal batean lehen aldiz kargua beteko duen beste emakume bati laguntzeko prest dagoena (borondatez eta modu altruistan) (Hasiberria)

# Zergatik parte hartu  mentore bezala? Zein onura ditu niretzat?

- Basqueskola Sarea osatzen duzu, EAEko tokiko hautetsien sareko partaide aktiboa zara
- VWBasqueskola hedatzen eta indartzen laguntzen duzu
- Tokiko politikan beste emakume batzuen lidergoa garatzen laguntzen duzu (ahalduntzea eta sororitatea)
- Formakuntza prozesuaren bidez konpetentzia personal eta taldekoak garatzen dituzu
- Zure esperientzia eta ezagutzak partekatzen dituzu, beti atsegina dena. Zuk behar izan zenuena eskaini dezakezu
- Mentore taldeko kide izatea, berdinengandik ikastea, elkarren euskarri izan baitaitezke.
- Basqueskolako laguntza teknikoko taldearen laguntza duzu
- Errekonozimendu formala (ziurtagiria, errekonozimendua) programa ebaluatzeko eta ixteko ekitaldian
- Emakumeek tokiko politikan parte hartzeko benetako laguntza